



319/2016 Ebazpena, azaroaren 21ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena; horren bidez agindua ematen da 1 Lehenetsuneko eta 2 Lehenetsuneko aldi baterako kontratazioko behin-behineko zerrendak, lanpostu hutsena eta ordezkapenena (2014ko Aldi baterako kontratazio zerrendak), Osakidetzako webean argitaratzeko lanpostu funtzional hauetarako: Zuzendaritza Nagusiko ofizial gidaria, Osasun-garraioko ofizial gidaria eta Emergentzietako ibilgailuen ofizial gidaria.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluak aldi baterako kontratazioko zerrendak sortzeko eta kudeatzeko modua arautu zuen 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak 2011ko uztailaren 15ean emandako Ebazpenaren bidez, 1282/2011 zenbakiduna (EHAA, 142 zk., 2011ko uztailaren 27koa), onartu egin ziren 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak; horietan ezarritakoaren arabera eskuratzekoa zen lotura estatutario finkoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan.

Pasa den urteko abenduaren 22ko 361/2014 Ebazpenaren bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariak emandakoa, ireki egin zen 2014ko aldi baterako kontratazio zerrendetan izena emateko epea (2015eko urtarrilaren 8tik 30era), 2011ko Enplegu Publikorako Eskaintzan deitutako kategorietarako eta ireki behar izan diren beste 5 kategorietarako.

Behin zerrendok ordenatuta, kontuan hartuta horiek sortzeko irizpideak -laugarren atalean zehaztutakoak-,

## EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.-** 1 Lehenetsuneko eta 2 Lehenetsuneko aldi baterako kontratazioko behin-behineko zerrendak, lanpostu hutsena eta ordezkapenena, Osakidetzako webean argitaratzeko agintzea, lanpostu funtzional hauetarako: Zuzendaritza Nagusiko ofizial gidaria, Osasun-garraioko ofizial gidaria eta Emergentzietako ibilgailuen ofizial gidaria.

Zerrenda horiek 2016ko abenduaren 2an sartuko dira indarrean.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen aurka erreklamazioa ezarri dakiokere Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariari ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, abenduaren 12ra arte, barne.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko azaroaren 21ean

Jose Maria Armentia Macazaga  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA  
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: Jose Maria Armentia Macazaga

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD